

Ireki dute A-8 eta N-1 errepideen arteko Lasartetik Aritzetarako lotunea

Añorga parean izaten diren erretentzioak saihestuko direla uste dute agintariak


I. Petxarroman / Donostia

Atzo ireki zuten N-1 eta A-8 errepideen arteko lotune, Lasartetik Aritzetarako. Hortara, Gipuzko Foru Aldundiko agintariak uste dute N-1 errepidean Añorga parean izaten den trafiko handia arinduko dela, eta maiz gertatzen diren erretentzioak saihestuko direla.

CONSTRUCCIONES Murias S.A. eta Construcciones Moyua S.A. enpresek osatutako aldi baterako enpresa batek egin du A-8 eta N-1en arteko lotura berria: Txikierr-di aldi baterako enpresak.

Lanak 1997an hasi ziren, eta aurreikusitako epean bukatu dituzte. Hala ere, oraindik hari bat falta da erabat bukatzeko: hain zuzen ere, A-8 eta N-634ren arteko lotunea. Izan ere, Lasarte-Orian egiten ari diren Eroski saltako handiarekin lotu nahi dute errepide berria, eta hori abuzturako bukatuko dutela agindu zuen atzo Antton Jaime Foru Aldundiko Errepide diputatuak.

Diputatuarekin batera, lanak zuzendu dituzten teknikoak eta Jose Maria Sarasola Errepide Saileko zuzendaria izan ziren. Sarasolak eman zituen errepide berriaren inguruko nondik norakoak. N-1 eta A-8ren arteko lotune berriak 2.800 metro luze izango ditu, Lasartetik Aritzetara. Lotunea N-1 erre-



PABLO S. QUIZA

Lotura berria inauguratzeko atzo egin zen ekitaldiaren une bat.

pidean hasten da, Lasarten. Zubibide baten bidez, trenbidearen eta N-634 errepidearen gainetik igarotzen da, eta gora egiten du. Punturik gorenean tunel artifizial bat ezarri dute. Tunel artifizialaren gainetik Aingeru Guardarako bidea berregin dute.

Hiru bide Ondarretako hondartzaraino

Tunela pasata, A-8rekin bat egiten duen lotune handia dago, Bilborako edo Behobiarako norabidea hartzeko.

Sarasolak azaldu zuenez, hasieran lanak hor amaitzea aurreikusia zuten, baina gero proiektu berria onartu zuten. Hain zuzen ere, puntu horretatik Ondarretako lotunera bitartean hirugarren bidea egitea, zati horretan trafikoa handituko dela uste baitute.

Antton Jaime Errepide diputatuak errepide berriaren garrantzia nabarmendu zuen. Izan ere, haren ustez, nabarmen arinduko du N-1 errepidean, Añorga parean, gaur egun dagoen trafiko handia —72.000 auto egune-

an—; eta, bestetik, istripuak direla eta, puntu horretan askotan izaten diren erretentzio handiak saihestea ahalbidetuko du. Lotunearen zati handi bat Europako sustapen fondoekin finantzatu dute.

Oria Garaiko araztegia 2001. urtean jarriko da martxan

■ 1.560 milioi pezetako aurrekontua du

Europa Press / Donostia

ORIA GARAICO araztegia 2001. urtean jarriko dute martxan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak atzoko bileran esleitu zituen Legorretan egongo den araztegiko lanak. Guztira 1.560 milioi pezetako aurrekontua du aipaturiko lanak (62 milioi libera inguru). Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bertako Ur Mankomunitateak erdibana ordainduko dituzte lanak.

Araztegia «etekin handikoa izango da», esan zuen atzo Jorge Letamendiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintza diputatuak.

Oria ibaiko urek duten fosforo maila altuari —alga kopuru ugariak eraginda— aurre egiteko sistema berezia dauka araztegi berriak.

Oria Garaian egiten ari diren lanen baitan kokatzen du Letamendiak araztegi berri honen eraikuntza. Guztira 8.000 milioi pezetako aurrekontua du Gipuzkoako Foru Aldundiak lan horiek egiteko.

Gipuzkoako zortzi gasolindegitako neurgailuetan akatsa atzeman du Industriak

■ Guztira EAEko 1.403 zerbitzugune aztertu ditu Eusko Jaurlaritzak

Erredakzioa / Donostia

EUSKO JAURLARITZAKO Industria Sailak azterketak egin ditu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 1.403 gasolindegitako neurgailuetan, onartutako akats batez bestekoaren barruan zeuden edo ez jakiteko. Ildo horretan, aztertutako guztietatik zortzitan bakarrik gaimditu da onartutako %0,5eko muga. Hain zuzen ere, Gipuzkoakoak dira akatsa duten zortzi gasolindegia.

Hala ere, akatsa eman

duten zortzi gasolindegia horietan ez dute iruzurrik atzeman, Industria Sailak jakinarazi duenez.

Aurtengo lehen bost hila-beteotan gasolindegietako neurgailu ugari aztertu dituzte hiru probintzietan: hain zuzen ere, Arabakoan %53, Gipuzkoakoan %31 eta Bizkaikoan %48,76.

Gasolindegia gehienetan neurgailuek onartutako akats mugarik ez zuten gaimditzten, eta, beraz, Industria Sailak normaltzat jo du haie-tako gehien funtzionamen-

dua. Errore kopuruaren muga gaimditzearren arrazoia neurgailuan, erabiliaren erabiliz, desoreka sortzen dela izan daiteke. Horregatik onartu egiten da %0,5etik beherako muga.

Hortik gorakoa gaimditzten dutenen kasuan, Industria Saileko teknikariak saiatzzen dira aparailua konpontzen, eta ezin badute itxi egiten dute, konpondu arte. Aparailua manipulatututela somatzen dutenean bakarrik hartzen dira zigor neurriak gasolindegien kontra.